

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

222n. zenbakia  
urrilla 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**BERMEO:** – JAIK OSPATU DIRA  
– IRUDI AURREAN KAIA  
– ATZEAN EUPEME DEUNA  
– ARRANTZALEEN KOFRADIA

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

1997-98 | KASTU RTEA

OGEITAMARGARRENA  
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 17.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22  
BILBAO

30<sup>2</sup> CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, 0 MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso** completo: 17.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22  
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

< Bilbao Bizkaia Kutxa

**ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko ere. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren ize-na ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.**

**Colón de Larreátegi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO**

**Eskerrik asko urtero -zintzo -zintzo ordaintzen dozuen guztioi.**

## BIZKAIEREAREN ETORKIZUNA?

Bizkaiereak gaur egun dauazan indarra eta osasunaren barri jakiteko gizarte bizitzako arlo guztietara jotea baino ez dago. Azkenengo urteetan noraino izan dauan atzerantzako bilakaerea —erabileran ezeze, jakite—mailan be— egiztatuko dogu: **Bizkaierearen egoera benetan txar-txarra da!!!**

Izan be, administrazio, ezkuntza-sistema eta edabideetatik kanpo lotu da, geiagoko barik. Literatura edo kultura arloan, astirotxuago bada be, laster be laster atean lotuko jaku. Bizkaierearen baliogaltze orrek, erabileran artez -artezean aparaurik, beerakada aundia ekarriko dau. Eta txarrena, gal-dubide on ez da oraindikarren eten edo lotu.

Egoera negargarri orretaz jaubeturik, asi dira, motel eta kikil eran asi baino ez bada be, an-or-emenka taldetxu eta ekintza bakanen batzuk ardura mingarri on erritar bizkaiere-dunengana ekarteko guran.

Oreetariko bat, dagonilaren 27an, arratsaldeko 19,30etan, Bakioko Kultur Etxean egin zan maai-ingurua izan zan. **Bizkaierearen etorkizuna** goiburuean onako berbalari oneek artu eben esku:

XABIER AMURITZA (bertsolari eta idazlea) - "Bizkaie-rea eta Kultura Mundua".

KONTXI GABANTXO (Bermeoko Udaleko euskera koordinatzailea eta UEMAKo leendakariordea) - "Bizkaiera Administrazioan".

IGONE ETXEBARRIA (ETBko euskera arduradun eta Labayru Ikastegiko irakaslea) - "Bizkaiera Edabideetan".

JOSE MURUAGA (Bermeoko Ikastolako zuzendaria) - "Bizkaiera Irakaskuntzan".

Moderatzailea: JESUS EGUZKITZA "EGUZKI" (bikoiz-taile eta Labayru Ikastegiko irakaslea).

Zoritxarrez, Jose Muruagak ezin izan eban etorri eta bera-ri azaldutea egokitu jakon gaiari Xabier Amuritzak ondo be ondo oratu eutsen. Berbalari bakotzak beraren gaia azaldute-ko 15 minutu izan ebazan, moderatzailea be barru. Geroago euren eta entzulen arteko eztabaida mamintsua izan zan, bakotzak beraren eritxia emon eta urkoaren eritxiari esateko-ak esanez. Ordu biko iraupena izan eban maai-inguruak.

Ondorio nagusiak urrengo oneetan laburtu leitekez:

1.—Bai irakaskuntzan, bai administrazioan, bai edabide publikoetan, bizkaiereari jagokonez EAEko erakundeetatik egiten dan izkuntza politika ezegokia eta ezorekatua. Teorian bizkaiera onartuten bada be, praktikan, baina, bestelango kontua da, utsaren urrengoko balioa emoten deutsoe eta.

2.—Bizkaierearen bizkaierearenganako lotsa antzeko

edo ustezko konplexu andia dala-eta, argi be argi dago bizkaierearen etorkizuna bizkaierearen euren eskuetan dagoa-na.

Bizkaiera ez erabiltearen errua, zate andi baten, geuregan dago eta.

3.—Bizkaierearen estandarizazioa bear-bearrezkoa da. Au da, erabilera idatzia eta berbatua oraindikarren arautu barik dagoz, gino aundi baten, beintzat.

4.—Bizkaiera versus batua edota batua versus bizkaiera, urteetan bizi izandako burruka antzu on albo baten baztertu bear da. Biak alkarren ondoan bizi leitekez-eta, alkarrengan-diko osogarritasunean, atan be.

5.—Gaur egun egiten dan batua bizkaierearen kutsuaz txi-priztinduteko bearrizana dago.

Iniaki MARTIATU

1997ko irailean

EUSKAL ASTEA **BIZKAIA**'n  
"Euskerazaleak alkartea" k eratua

Bilbao 'ko Udalaren babespean  
NON? Eskolapioen ikastetxean (Alda. Rekade 19)  
NOZ? 1997-12-1'etik \_5'era  
ORDUA: Arratsaldeko 8'retan  
Gaiak eta izlariak URRENGO "ZER" en

"ZER" ALDIZKARIA

Neurria: Zortziko nagusia  
Doiñua: Amuritzaren "txoriak eta txoriburuak"

I

Barriri nator bertso-kantari  
pozik ZER aldizkarira,  
euskerak ba-du orri oneitan  
grazia ta dizdira.  
guk darabilgun bizkaiera  
gogoz loratzen ari da  
askok jakinda ez dabiltenek  
ia oartzen badira.

II

Zubiri dogu EUSKERAZALE  
elkarteko lendakari.  
zuzendari lez Martin Olazar  
da ZER'ko aitzindari.  
Izkuntza garbiz idazten dabe  
polito ta ugari.  
Ondo merezi duen lekua  
emanaz bizkaierei.

LEUARRETA'tar Asier

---

# SEBERO ALTUBEREN ESAKERAK ETA ATSOTITZAK

---

Sebero Altubek 1912. urtean, batez be Gernikan eta Arrasaten, batutako esakerak eta atsotitzak argitaratu dauz Xabier Kalzakortak MENDEBALDE alkarteak kaleratutako "Menbebaldeko euskera XX. mende goienean" deritxon liburuan. Ona emen, bada, lan orren emoitza.

- Agindua bat, emona bi, aginduaz pozik izan adi.
- Aal danean aal dana, itsasoko arrainik onena.
- Aaleginak egitea ez dok naikoa, aaleginote egin bear dok.
- Aaleginak, zazpi.
- Alabea ezkondu ta gero, merkatariak atera.
- Aldiz-aldiz, zapatariak zaldiz.
- Alperrik izango dok gizonik abilena, ez dok aberastuko doan dabilena.
- Andre Maria martiko, artean udeak tatiko.
- Arin ta eraz, usoak egiten dau egaz.
- Astoak eunginan, besteko modua.
- Astoa eunetan, asinus ad linans.
- Ate ama maratila.

Bakotzak bere opilari ikatz egiten deutso. Guk be geureari egiten deutsogu.

- Balego ta balitz, alkarren atzean/urrean dabilz.
- Bearra kakea, bapez egin ta bakea.
- Beia lausian (lauzurian) eta lausikorik (lauzurikorik) ez.
- Biziak erremedioa, flak enterrarioa.
- Dagoanean bon-bon, ez dagoanean egon.
- Dagoanean dagoantxua, ene enetxua.
- Derrigorrekua, iltea da bakarrik.
- Dirurik ez daukana perretxikotan, zizpuru egiteko lekurik askotan.
- Donostian Donostia eta gorostian gorostia.
- Egiak, erreten dauz begiak.
- Eginak, egitekoari itxaron.
- Eunak, eun lan.
- Entzun ta gor.
- Entzun ta gor, ikusi eta itsu.
- Errementariaren etxean, zotza burduntzi.
- Etxe utsa alagarri, betea kontsolagarri.
- Etxe utsa, gerra utsa.
- Etxean gerrea eta kanpoan barrea.
- Ez dan bedarra, berez igarten da.
- Ez nekian baino, oba (dok) banekian.
- Ezer ez dagoan lekuan, eskuak garbi.
- Ezin dauanak lasuna, jo bei agoan asuna.
- "Ezin leike" ez eik esan, "ezin neike" baino.

- Ezina, arria baino gogorragoa (dok).
- Ezkondu arte larri, gero baragarri.
- Ganorabako etxean, goizeko saldea arratsean.
- Gauean errondan, goizean logura, orrako mutil on ez dok osasungura.
- Gauean errondan ta goizean logura, ene semetxu ez az osasungura.
- Gauza barria galbaeaz ura, zaarra edarreaz be ez.
- Gazteak gaztelu eta zaarrak maskelu.
- Gazteak segururik ez, zaarrak eskapurik ez.
- Gerrarik onena baino, bakerik txarrena oba / oba dok bakerik txarrena.
- Goazen beste errira, an be txakurrak dira.
- Guzurra esan neban Getarian, ni baino leen zan atarian.
- Guzurra ta errena, arin arrapetan dira.
- Guzurra ta errena, errez oratuten.
- An be txakurrak ortozik.
- Asiak, egina dirudi.
- Asiak egina dirudi, eginak urregorria.
- Atzamarra emon ta besoa artu.
- Azurra koipea, baina maminak ohea.
- Iru gauza alperrik galduten dira munduan: beartsuen arrazoia, nagien indarra eta urrineko egur igarra.
- Igaz igazkoa ta aurten aurtengoa, nekez ezkonduko da ganorabakoa.
- Intxaurretarako, ez dok arririk falta.
- Inurria be, aide oba aurka baino / aurka baino aide oba.
- Ipinea, zain dago.
- Itsuari argi egiteko ona ago.
- Jaungoikoak, otz aina estalgi emon oi dau.
- Jaungoikoak, otz aina estalgi emoten jeuskuk.
- Jokoa, ez da errentea.
- Kontuak kontu, senarrak boltsea, deabruak eroan daijala olango ezkontzea.
- Kanpo, eder.
- Kriada barriak, galbaeaz ura.
- Kriada barriak galbaean ura, zaarrak erradan be ez.
- Lapurra, lapurren bildur.
- Lausian (lauzurian) pupu, lamaian (laumarian) trapu.
- Leenengo asunak eta gero lasunak.
- Luna bigunago, arra barrurago.
- Marabidian idia, non da marabidia?
- Martiko eguraldia, eguzkia edo euria.
- Mojei, ez jake burdirik iruliten.



**Eusko Jaurlaritzaren**

**Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

Mokorik ez daukanak, painueloa.  
 —Mortzilea, katuaren atzean.  
 —Nik igarri, nor dan egarri.  
 —Non nire txoko, an nire goxo.  
 —Norbera ondo dagoanean, ez dok erruki laguna.  
 Nork nori, galdara zaarrak pertzari.  
 —Ondo eginaren pagoa, ate ostean paloa.  
 —Orain be, leengo lepotik burua.  
 —Otsoak, otsokumerik ez jok/dau jaten.  
 —Pazko euritsu, urte ogitsu.  
 Pazkoko euria, urteko ogia.  
 —Saldua, galdua.  
 —San Bizente otza, neguaren biotza.  
 —San Jurgi, artoak ereiteko goizegi; San Markos, artoak ereinda balegoz.  
 —San Milian, ardia/ardikia jan eta akitian.  
 —San Milian, buzkantzak jan ta akitian.  
 —Santa Lutzia, eguna motza eta gaua luzea.  
 —Santa Lutziaz gaua da luze, San Bernabetan eguna. Norbera ondo dagoanean, ez dok erruki laguna.  
 —Segidorea, bentzidorea.  
 —Surik ez dagoan lekuan, kerik ez.  
 —Surik ez dan lekutik, kerik ez.  
 —Toketan jakoz arratoiari polainak!  
 —Toketan jakoz astoari polainak!  
 —Tripeak, urak eta suak, emoten jok guztia eroa.  
 Tripeak, urak eta suak, emoten jaken guztia eroaten joek/dabe.  
 —Txakur gosetuak, ogiaz amets.  
 —Txarria, beti basatzara.  
 —Udabarriko lora ederrak jausten dira negura, beti gustora biziko danik ez dok jaioko mundura.  
 Ukondoa ur, baina ezin munik egin.  
 —Ukondoa urrean, baina munik ezin egin.  
 —Umeak zer ikusi, a ikasi.  
 —Umearen zentzuna, etxean entzuna.  
 —Uren ganeko bitsetan eta areen ganeko sitsetan (dabil).  
 —Urrineko intxaurrak amalau, urreratu eta lau.  
 —Urrineko intxaurrek, zarata asko.  
 —Urtebarri, zoroak igarri.  
 Usotik usarrera (on be).  
 —Zaitan fin eta urunetan basto.  
 —Zaitan urun eta urunetan zai.  
 —Zalditik astora.  
 —Zelango Peruxa, alango Maruxa.  
 Zer ikusi, a ikasi.  
 —Zozoak beleari, eperdibaltz.

## Berbalapikoa

adi= zaitez (itanoa).  
 dok= da (itanoa).  
 aaleginote= aalegin andia.  
 aldiz—aldiz= batzuetan, lantzean bein, noiz edo noiz.  
 doan= doainik, musutruk, ezer ordaindu bank.  
 tatiko= emoteko keinua egin baina emon ez. (tatiko ibili, tati egin)  
 eraz= errez, aalegin andirik egin barik / egokiro, taiuz.  
 eunginan= eungintzan, eunetan, oialak egiten.  
 eunetan= eungintzan, eunginan, oialak egiten.  
 asinus ad linans= (latinezko esakerea).  
 maratila= kisket, zerraila, txaramel.  
 Opil= talo antzekoa.  
 lauzuri= lauzuriko, lausi (lau zuriko txanpona).

bon—bon= eurrez, oparotasun, ugaritasun / xaukeria, dirua alpe-  
 rrik ondatutea.  
 zizpuru= asperen, zinkuri, negar—zotin.  
 eun= oial.  
 burduntzi= erreleku, gerren.  
 alagarri= nekegarri, neketsu, gatx, gogor.  
 eik= eizu (itanoa).  
 lasun= korkoin (arrain moeta bat).  
 az= zara (itanoa).  
 osasungura= osasunzale, osasungose.  
 galbae= arrazko, bae.  
 edarra= suil, murko, txanbil (ura eroatekoa).  
 maakelu= kankailu, trakets, ganorabako, trauskil.  
 atarian= jende guztiaren agoan / etxeko ataurrean.  
 erren= urgun, txanget, inkili—ankala dabilena.  
 ortozik= oinutsik.  
 beartsu= txiro, ezeuki, lander.  
 dok= dozu (itanoa).  
 ipina= imina, gaitzeru, *anega* laurden (pisu—neurria).  
 estalgi= abaro, babesleku, gordeleku, estalpe.  
 jeuskuk= deusku (itanoa).  
 pupu= min, oinaze.  
 laumari= laumaraiko, laumarai (lau marabidiko txanpona)  
 marabidi= marai (txanpon moeta bat).  
 pertz= galdara, maskulu.  
 leengo lepotik burua= eritxia edo izakerea inoiz aldatu barik dabi-  
 lena / nor berean egon.  
 jok= dau (itanoa).  
 akitian= jauzika, triskan, ikotika, saltoka. (akitika ibili)  
 ero= zoro / uts, utsal, bao.  
 joek= dabe (itanoa).  
 mun egin= buruan izan ezik, gorputzearen edozein lekutan emo-  
 ten dogun musua; buruan emon ezkeru, musu esaten jako.  
 sitsetan ibili= ugari be ugari euki, oparo bizi, andikiro bizi.  
 zai= birrin, otaza (ogiarri botaten jakon gari azala).

Iniaki MARTIARTU  
 1997ko dagonilean

## ATSOTITZAK ETA ESAKERAK

—Antza, ez da dantza.  
 Dirubako anditasuna, su bageriko bartzuna.  
 Ez dago txarrik, ondo ez datorrenik.  
 —Eztul zaarra, lagun txarra.  
 —Galdu beite gizona ta ez aren ospe ona.  
 Lagun onak ondu, dongeak dongetu.  
 —Lapiko utsak, zarata andia.  
 —Martiaren erdi(a)n, eguna ta gaua bardin.  
 —Urrutiko intxaurrak amalau, etxera orduko lau.  
 —Zelako izari, alako sari.  
 —Zelan etorri, alan joan.  
 —Zurrut eta purrut, batera ezin leiz.

## Berbalapikoa

bartzun= bartzin, sumakil (txingarrei eragiteko agea).  
 donge= txar, oker, biurri, gaizto.  
 orduko= baino leentxuago.  
 izari= balio, domu, salneurri / neurritasun, neurri, eratasun.  
 zurrut= dzangada, zurrustada / zurrut egitearen zarata—itza.  
 purrut= uzker, sabel—aize / uzkerra botatearen zarata—itza.

Iniaki MARTIARTU  
 1997ko irailean

---

# DALAI LAMA

---

Lendakari Ardanza jaunak dei eginda, gure artean izan dogu Tenzin Gyatso, Dalai Lama; itzal aundiko gizona Tibet'eko erri ta budismoaren aitzindaria dana. Onezaz gainera 1989'n. urtean irabazitako ain bikain bezin aintzagarria dan Nobel Pakearen saria, jaso ebana ber-bera dozue.

Sondika'ko aireportuan dagon arrera-gelan, Ardanza'ren ongietorria artzean an aurkitu ziran, aurrez-aurre, euren bizitza ta auzietan ain itzalezko antzekotasun daben erri biko buruzagiak. Gure ikustzaille ospetsua, lamaen soin-gaiñeko jatorraz jantzita etorri zan.

Itzaldi maitekor eta labur bat ondoren, naizta ingeleraz eta itzulpenak bidez egin bear, Dalai Lama'k opari berezi bat lendakariari egin eutson. Tibet'eko oiturari jarraituz, kata deritxon setazko zapi zuri bat lepotik bera eskegi eutson. Ondoren, Euskal Autonomi Elkarte"ko iru erri-alde zear agur-ikuste bat egiteko asmoz, Donosti'rako bidea artu eban.

Tibet, Txina sartaldean. India ondoan, dagon lurraldea dozu. Ego aldetik Himalaya mendiketa ikaragarria dauko mugarritzat. Bertan dago ain ospetsu dan ludiko tontor goratuena Everest deritxona, 8.848 neurkin itxas-goibe daukazan. Euskal-Errian oso ezaguna da, ba gure mendigoizaleak, bein baiño geiagotan, bere gainean eusko ikurriña tinkotu dabe -ta.

Erri onen eremu edo zabaltasuna oso aundia da. Ego Euskal Erria (Naparroa be sartuta) baiño 68 bider orrenbat zabalagoa. Ain aundia izan an-en, biztanle gutxiko erria dogu. Inor, edo bizi-lagun oso urri. bizi dan lurralde asko dagoz -eta.

Tibet eta ego Euskal Erri'ko biztanle kopurua antzekuak dira. Orregaitik, biztanle-estatusun edo dentsitatea agertzen ba'dogu, aitatu dogun eremu bardiñetasun ori, oso argi agertuko jaku. Tibet'en aneurkin laukitu bakoitzari dagokiozan biztanleak bi baiño gitxiago dira (1,55 Km.); ego Euskal Erria'n (Naparroa sartuta, leen esan dogu bezela) 150 baiño giago. Beraz, tibetana lurralde aundi baten bizi dan erri txiki bat dogu.

Zertzelada oneik guztiz aldatuak izan dira. Txinatarrak sartu ziran ezker (1950 urtean), bertakoak baiño geiago izanik, tibetanak gutxiengo txiki baten geratu dira.

Eni txiki ta oso berezi au, antziñatik beste errietatik bakartuta bizi izan da. Bere jaurbidea Jainko -agintzezko edo teokratikoa izanik, eliz-gizonak biztanle elizkidenganako bitartekotasun aundia dabe, batez be oraintsu iru egun gure artean egon dan Tenzin Gyatso, Dalai Lama. Izan be, esatekoa da gizon Jainko-zale ta zintzo au, Tibet'en bai jaurbidearen, bai budar-elizaren buruzagia dala.

Tibet, Euskadi ta beste onelako erri txikiak bezela, ingurueta-ko eni aundien atzamarretara menperatua izan zan orian benogeta-zazpi unte dirala.

Txina'k, bere gudarosteaz eta indarrez, ain baketsu zan erria, artu eban. Au dala-ta, Dalai Lama, Tibet'en osozko aitzindari dana, Himalaya mendiketa, millaka tibetarrez zearkatu ta gero, India'n geratu bear izan ziran. Andik, erbezeratetik, ekin ebazan beren eni -jakintza berezi ta askatasun-aldezipena.

Txinatarren sarrera ta zebadurea oso izugarri ta odolezkoak izan ziran. Tibet bezelako erri txiki baten, zortzi millo baiño geiago gizaki txinarrak sartzea, sanasketa uts bat baiño besterik ez da. San-era ta menperatze oneik ekarri ebazan ondorioak ba dakigu zeintzuk diran. Tibetarrak, bere aberrian bertan azpiratuta, bigarren maillako biztanleak izango ba'lira bizi dira. Euren izkuntza be baztertu ta txinera bearrezko izatea erabagi ondoren, irakazkuntza be izkuntza onetan egin bear izan eben, naiz-ta tibeterari be erabiltzeko baimena emon.

Tibetanak beren ondamendi ta algabetasuna, ikusirik, euren India'ko erbezeratetik ain ospetsu dan londontar egunkari Times'eri bialdu eutsoen, txinatarrak egindakoen aurkako agiri bat argitaratzeko. Ez eben damu larregi agertzen, komunistak ekonomi ta jabetasunari egin leikiezan kalteak gaitik; bailia bai-eta aundia-euren bereizitasuna, izkuntza, erlejiño ta erti-edertasunei egiten eutsiezanak. Esate baterako, ain erlejiñozale dan errian, lekaidetxe edo komentu oso kopuratsu izanik (6.000 gutxi gorabera) orain zazpi urte dirala, amabi bakanik egozan.

Egiak, Tibet eta Euskadi eni biren artean ba-dagoz zertzeladak eta zer-nola naikoa. alkarrezko antzetasuna emoten dautsienak.

Guk be, sarrera ta zebadurea ezagutu bear izan genduzan. Oin-diño ez da ainbeste aldi (1839 eta 1876 urteetan) karlistazko gudeak gertatu izan zirala. Franco'ren jeikitzen edo matxinada, barniz, (1936 urtean) orainagokoa dogu. Oraindik ba-gabiltz, eni Eta urietako kaleetan zear alkar agur egiten, Euskadi'ren aide su-izkillua bizkarrean daraguala mendietan ibilli gintzazanok; eta urtean bein alkartzen gara egitsari a, len-min eta maitasunaz, gogoratzeko.

Aurkako gudarosteak sartu ta gero... ango ondamendia! Bertako semeak asko, errira biurtu eziña ta erbezeratu izan bear. Bitartean kanpotarrak, neurri barik, etortzea... Euskerea guztiz bastertuta ta askotan mota guztietako euskaldun izenak aldatu bearra... Ori, olantxe, emen gertatu zan, Tibet'en be bai, ba ola-koetan beti izaten da bardin.

Su-izkilluak ixildu ta tiroketa amaitu ta gero, garaille ta galtzailleak geratzen dira. Geienetan Bakeko Ituna siñatzea, ez da benetako bakealortzea.

Giza-eskubideak barriro jarri dagiezanean, alderdiak asiko dira bakoitzak beren bidetik bakearen bila ta sarritan indarkeriaz. Gure Euskal Erri'an ontaz zertxobain ba-dakigu: kalez-kaleko zalapartak, baituak, atxilotuen urbiltzea... ta abar.

Gaurko gure ikertzaille Nobel Saridun ospetsua dan Tenzin Gyatso, jakiña, indarkeriaren aurkako dogu eta Gandhi'k esandakoa goiburutzat daukona: "Bakerako biderik ez dago; bakea, berbera, da bidea"

**IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER**

28-6-97

---

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

# KRISTAUTASUNAREN SORKUNTZA EUSKALERRIAN

**OARRA:** Elizondo'tar Mauro'k "El Correo" n erderaz idatzi dauan idaz-lan bat eldu jat eskuetara. Gaia "Latiegi'tar Bixente'ren liburu argitaratu-barriak dira. 1996'ko urrillean idatzi eban on Mauro adiskideak eta Bixente bere lanean aurrera ta aun-era doa: Sorkuntza, zabalkuntza ta sendokuntza dira sasoi orri buruz bere liburuak. Guztiz amar bat izango dira aleak eta oraintxe diardu jo ta ke VI eta VII mendeak astertzen. Pozik irakurten dira liburu oneik. Batez be eleiz-zaletasuna ta euskazaleasuna barruan daroaguzanak or jakingarri pozagarriak aurkitzen doguz, batzutan, zori txarrez, tamalgarriak be bai.

Guztiontzat, liburuak erosteko ta irurteko gogo-emoille izan daiten agertzen dogu, euskeratuta, Mauro'ren idaz-lan au. (Martin Olazar'ek).

Gasteiz-Vitoria'ko Seminarioan dan Iparraldeko Ikastetxe Nagusiaren Teoloji-Saillan euskera iraskasle izana dan Latiegi'tar Bixente Irakasleak arrituta itzi gaitu Eleizea'ren Edesti-Sorta'ren barruan atera dauan alegaz. Oraingo onetan gure Euskalerrria dau gai berezia. Euskeraz idatzia da liburu eta beronen idazpurua "Euskal-kristautasunaren sorkuntza (noiz, nondik, nor, kristauatasuna Euskalerrira). Garrantzi aundiko lana da au, gaia ondo dakian batek idatzia dalako. Ez zan naikoa izango idazlearentzat benetako edestia ez dan alan-olango liburu bat idaztea.

Billatzaille asko izan dira orain arte gai au gogoz aztertu dabena, lenengo lau gizaldietan ain illunak diran euskal kristautasunaren asierak barruan daroazan gaia: I mendeko kondaira olerkitsuetatik asi, Kartago'ko Tertuliano'ren baiezen sarkorakaz jarraitu, II gizaldian Lyon'ko Ireneo Deunak diñoana kontuan artu eta III eta IV mendeko eta agiritan agertzen diran jazokizunakaz amaitzeko.

Or agertzen dan Euskalerrria ez da gaur, tamalez, ain murriztuta ikusten doguna, erromatarren aldiko Euskalerrri zarra ta zabala dogu. Eta idaztaren elburu nagusia auxe agertzea da: Euskaldunak noiz asi ziran "AITA GUREA" esaten eta, al ba'da, otoitz on euskeraz esaten noiz asi ziran (Or agertzen da billaketa eder bat sakratuak diran eta ez diran izkuntzai buruz).

Gaia zelan daroan agertzeko, lenengo ta bein agertu bear dana, Latiegi'ren zientzi-jokoa da: Ondo be ondo bereizten dauz kondairak eta edesti-giroko agiriak, zeatz jakin-erazten dau kondairan balio laburra edo ezereza, edesti-arluko lekuko diran agirien ziurtasuna noraiño-koa dan eta azkenean, zintzotasunik aundienaz bere eritxia agertzen dau apal. Euskaldunontzat liburu oso irakurgarria da, gaia dana eta era txalogarri baten aztertua izanik, astertzaillea dana dalako.

Latiegi'ren euskerea bizkorra ta garbia da: benetako euskerea. Idazle oneri buruz esan eban Lekuona'tar Manuel jaunak "Bixente'ren euskereak musika daroa bere barruan". Olazar'tar Martin'ek esan eban EUSKERAZAINTZA'n diran idazleen artean Latiegi punterengo bat dala. Eta Latxaga'k bere aldetik au diño: Ain ondo eskuratu dau euskerea Bizente'k ze, euskereagaz berak nai dauana egiten dau eta atsegiñez emoten dautsoz euki daikezan edertasun guztiak. Eta diño gaiñera: Euskeraren arloan Bixente Klasiko bat da.

Latiegi Eleizearen Edestiaren irakasle izan da 35 urtean, egunero irakastaldi bat emoten ebala, Gasteiz'en Anitua'tar Pedro jaunak irasi eban Langille-Ikasleen ikastegia egoan. Ikastegi orretarako izendatu eban Ballester Gotzain jaunak Bixente, abade izan baiño be lenago, eta biotzez eskatu eutson ikastegi on bizirik atera egiala. Oinarrria or zala sortu eban Bixente'k Eleizbarrutiaren Lanbide Ikastegia. Erlejiño-irakaskintzan, azkenengo urte biak ziran Eleizearen Edestia ikasteko, orretarako bear zan egitaraua Baldes'tar Ignazio Jaunagaz eta Zunzunegi'tar Jose Jaunagaz gertatu ondoren. Or asi zan Bixente egunero Eleizearen Edestia azaltzen. 18, 19 eta 20 urteko ikasleak eukazan aurrean eta oneitariko batzuk euskaldun ezkertiarren eragintzak ikutuak. Ez zan lan erreza. Bear-bearreko gauzea zan gauzak diran lez agertzea eta an ez egoan beste leku batzutan erreago egiten diran aldakuntzak eta isilketak egiterik. Orduan eskiñi eutson Bixente'ri Zunzunegi'tar Jose jaunak Eleizearen edestia euskeraz idatzeko bidea eta berbea emon eutsan Seminario'ko Liburutegira orretarako bear ebazan liburu guztiak ekarriko eutsazala.

**ELIZONDO'tar Mauro'k**

## IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurtzen be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabiliaz idatzia izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuiñak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabena ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabena be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

—Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14. 2.º eskoia) egon bear dabe.

Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

—Sariak lau izango dira: 1.º 50.000 pezeta.

2.º 40.000 pezeta.

3.º 30.000 pezeta.

4.º 20.000 pezeta.

—Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

# MIAMSI LAGUNARTEA I

"Gure sinismena ta bizia  
bat egiten saiatzen gara"

### ZER DA MIAMSI?

Gaztelaraz "Movimiento Internacional de Apostolado en los Medios Sociales Independientes" esan gura dau. Lagunarte au laikoen artean sortua dogu eta sinismen bidean, gizarte giroan eta kristau eliza barruan burututzen ditu bere egitasmoak eta errukizko eginak.

Parrokia ontan aspalditik finkatua dogu Lagunarte au eta ikustekoa da euren su ta garra beartsuen aidejokatzeko.

Kristo'gandik datorkigun alkar maitasuna osoro bizi eta beartsuei laguntasuna emotea da euren funtsa ta erabakia.

Egizko maitasunak on-egiteak eskatzen ditu bata bestearen alde. Eginbearrik txalogarriena beti izango da alkarri gure barruan ditugun ondasunak eskeiñi, gure jakintza, gure sasoi eta gure aalegiñak.

Jesus'en esana gogoan artu: "Erruki nakio jendetza oni, artzain bako artaldea dirudi". Gizakiari errukia artzen ikasi, gizakiari begiramena, itzala, laguntza emoteko prest egon! Zenbat gizatalde dago gaur, mundu zabalean, erruki eske, ezer be barik dagozalako.

Alkartasun bizitzan pixka bat burua sartu ezker laster ikusten doguz bata bestearen utsak, akatsak, makurrak, bearrizanak, estutasunak eta larritasunak.

Gizarte bizibidean, barriz, nabari izaten dira geixoa ta auleria, bakartasuna, gauzeztasuna, zaartasuna, arreta ta abegi onaren urritasuna, etxekoen artean zaarrak baztertzea, eskontza auste ta ortik datozen buru austeak.

Zoritxar onetan buru-belarriraño sartuta, zer egiñ? Norgana zuzendu begiak? Makiña bat gizaseme bizi dira gaur egun bizikera larri onetan murgildurik, aberatsak eta txiroak, lanean eta langabezian dagozanak.

Barruko gaitzak dira, izan be, gaitzik zorrotzenak. Egiaz esan dagikegu larritasun gorrienak ez dagozala poltzikan eta txanpon kontuan. Andik kanpo, edo obeto esateko, giza barruan dagoz oñazerik izugarrienak.

Larrialdi oneik ez dira konpontzen sendagilleen itunaldietan, maitasun giro beroan baño. Gaitz oneik aztertu eta baztertu nairik sortu zan MIAMSI Lagunarte. Gaur egun lurbira osoan zabaldu dago ta 42 nazioetan saiatzen da errukizko eginbide ontan. Berrogei millatik gora dira bere bazkideak.

Eta euren biotz barruetan kezka onen zirria dabe: "Zer egin dagiket neure urko lagunaren, auzokoaren eta baztertuaren alde? Eta zer, zenbat gauza eder ikasi bear ditut eurekandik? Irakastera doanak beti dau zer ikasi, batez be aren nekezko bizikeran!"

### ON-EGIÑAK

Egitasmoak eta egiteak batera jo bear dabe. Alkar maitasunaren gailurra ekintzetan dago, eta ez mintzoetan.

Emen, arlo ontan dago MIAMSI Lagunartearen ekinbearra.

Lenengo arazoa alkar ezagutzea da. Norberaren burua ezagutu-arazo, nor naizen eta zeri nakion, zeintzuk diran nire asmoak, zergaitik arduratzen naizen gizartearen alde. Eta zelan nabillen Kristo'ren izenean maitasuna, grazia, alkartasuna ta mesedea noranai eroaten.

Etxetik urrunera joan barik laster sumatzen dira jendeen nekeak eta lorrak. Bearraldi eta oñazetan bizi diran personak, barriz, lasaitasunean bizi diranak baño zabalagoak dira euren aide egiten diran serbitzuak onartzeko.

Beste biotz bat dauke, beste izakera bat, beste tankera bat.

MIAMSI Lagunarte, bere ariketak betetzeko, ez dabil jaki ta jantziak zuzendu eta zabaltzen, edo etxaguntza lanean sartzen. Laguntasunik egokiena biotz barruko zauriak sendatzea da. Biotzera jo bear da. Biotzak alkartasunera zabaldu. Alkartasun bidetik sortuko dira, iturri garbitik bezala, lagunarterik gozoenak eta ekiñaldirik goragarrienak. Danok, danen aide ekiñ Dirurik emon ez arren, gaitasuna ta aaltasuna eskeiñi bear da. Eta ortarako gizartearen erakundeak ezagutzeko bideak zabaldu.

Pedrok esandakoa da biderik onena: "Dirurik eta zidarrik ez dot, dodana damotzut: "Jagi ta ibilli", asi jauzika Jaunaren izenean, poztu, argitu zure gogo. Auxe da, izan be, Kristo gure Jaunak ekarri euskun alkar maitasuna.

Parrokia ontan pozik gagoz Lagunarte onekiñ. Biotz illun askotan argi zoragarria biztu da.

**Uriguren'tar Zenon**

(Jarraituko dau)

### ONATIBIA to AUDELA'tar YON FUNDAZIÑO



—Pozez bete gaitu barri eder onek.

— 1997-09-08 egunean Notario-aurrean fundaziño bat sortu da, Bilbao'n.

— Fundatzaillak, Gipuzkoar bi, arabar bi, bizkaitar bi, napar bi.

—Elburua: euskalkiak, batez be bizkaiera, indartu.



---



---

## ARTZA ZURIA

---



---

P.Y.S.B.E. Donostia'n bakallau-arrantzarako 1927'garrenean sortutako konpañia bat zan. Berreun urtez Terranoba'ra joanik gabe zeuden ego-aldeko euskaldunak, 1713'ko Utrech'ko Itunaren debekua zala bide.

Bi barkuekin eman zion asiera bere lanari konpañi onek. 1.600 toneladako ontziak. Arrantzarako oso aundiak eta bakarka ekiten zuten arrasteko sareekin. Nere aita izan zan lenengo kapitana eta orregaitik dakit konpañi onen berri. 1927'an sortu eta 1973'garrenean kiebra jo, amazapi ontzi, 62 gizaseme ontziko, uraren gañean zituztela.

\*\*\*

Groenlandi eta inguru artako Spitzberg'eko ugartee-tan ere ibilli oi ziran. Goiz argi batean lenengo Pillotua eta beste iru lagun, txalupa artu eta lurreratu ziran ikusmira. Txalupa ertzean lotu eta barrura abiatu ziran pozik eta alai muñorik muño. Lur eta izotz zati galantak, uda izan arren, Euskalerrian ez bezala.

Alako batean, ara nun agertzen zaien, elur artetik, artza zuri aundi bat, euren bidera zetorrena. Ekin diote laurok arin-aringa txaloparen billa.

Madarikatua, maria beera jetxita zegoen berrogei metro. Eldu txalopari eta ekin diote lorrean uraren billa. Ez nai bezin bizkor. Artza zetorren zanga ta zanga, lau ankan, euron billa. Mutillak estu eta larri. Belarrietan zuten artzaren arnasa. Elduko ote dira itxasora artza baño lenago?

—Gaitz-erdi! Garraxi egin zuan kapitanak barkutik, txalopak ura ikutu zuenean.

Baña, artza ez zegoen orrela bere lanari usteko, eta txopalekin batera salto egin zuen uretara. Orixe izan zan artzaren okerra. Barkutik tiroz ilko zuten eta barrura jaso. 800 kilo aragi eta ezur. Aren larrua Pasaia'n egon zan esegita jendearen miragarri.

\*\*\*

—Gaizki pasatu al zenduten? Galdetu nion pillotuari.

—Kontuan artu. Une batean egon nintzan, txalopa irauli eta geu barruan gordetzeko agindua emateko ere!

—Eta, maria-goran, zer?

ANES ARRINDA

### EUSKARA BESAMOTZ

Nork ankerki  
euskara zaarri  
besoa ebaki?  
Zertarako, zergaitik  
gorrotoa euskarari?

Gure mintzaira  
itolarrian,  
belarri-motzak  
arrokerian

Euskaldun zaren orrek  
oiukatu gure izkuntzan  
euskara jauzika enparantzan

Garrasi egin  
euskara osatu dadin"  
Besamotza izateaz  
lotsatu barik,  
euskaldunon mintzairaz  
arrotasuna adierazi

Ezin dogu gure mintzaira  
odoluzten utzi  
ez orixe

Euskaldun denok  
bateginik  
lurbira guztikook  
abots batez

Izkuntza goraturik  
arnasberiturik  
udaberriko lore  
lirain biurturik

Ikas bezate  
erdaldun barbaroek  
badela, badela  
izkuntza ederrik  
izkuntza lirainik  
eztia bezain goxorik

Entzun bezate  
euskaldunon elea  
euskara dela

KAI A. ETXABARRIA

---

## ARGIUNEAK

---

### Kanpotik datozenak



- Makiña bat beltz badator gurera!
- Espana barruan 700.000 kanpotar omen dagoz.
- Asko dok ori.
- % 'tik 1,5. Ez da asko Europa'n bertan gertatzen danakin konparatu ezker.
- Zenbat dira, ba?
- Belgica'n % 'tik 12; Alemania'n 10; Ingalaterra'n 8; Frantzia'n 7 Verdi. Euskadi'n ez dakit... Baztarretan bizi-lekuak artuta daude.
- Espania'n gutxi ba'dira, ez dute geiagorik nai. Pilloka datoz txalopetan; pilloka itoten uretan; pilloka arrapatzen dituzte...
- Bañan, alan be, segi ta segi...
- Zer egingo dute, euren etxean ezer ez ba'dago? Euskaldunok zer egin genduan sekulako urteetan? Ameriketara jo. Orregaitik dagoz ainbeste euskaldunango baztarretan...
- Ango erriek ez zuten asko galdu euskaldunak an agertzearekin.
- Espania'k ere ez luke asko galduko etorri nai duten gizaseme aoiekin: ausartak dira, gazteak dira, indarra dute...
- Bai, emengo kristau-jeneroa geroz eta urriagoa... Odol gazte ori ez litzaioke gaizki etorriko.
- Emen laister agureak besterik ez da egongo...
- Gañera, bearrean dagoen lagun -urkoari laguntzea eta maitatzea da gure lenengo kristau -legea.
- Baña, emen kristaurik nun dago?

### Manterola'ren Ipuiak

Ama eta anai-arrebak, soloan Ian eginda, etxera eldu dira illunabarrean eta mai-erdian, argi bat ixiotuta:


- Mutillak: — Nork biztu ote dau argi au?
- Amak: — Aita ez ba'da, nor izan liteke? Peritik etorrita, ikulluan egongo da.
- Eta, alan gertatu zan.
- Bigaramonean, goiz-goizetik, eguzkiak argitzen dauz baztar guztiak.
- Amak: — Nork biztu dau argi eder ori?
- Alabak: — Ori berez da.
- Amak: — Jainkoa besterik ez da berez. Argirik txikiena be, argi egingo ba'dau, ixiotu egin bear da.
- Semeak: — Or goian argi aundi ori biztu dauanak, badauka naiko indar.

### San Pankrazio, osasuna eta lana

- Diokleziano, erromatar enperadorearen garaian eraildako martini orrek ez ditu birtute makalak.
- Erderazko orritxo batean irakurri ditut sekulakoak: Salud, Trabajo y Dinero. Osasuna eta dirua ematen ba'dizu, zertarako lan egitea?
- Bai, baña, orretarako, medallatxo bat erosi bear da. Baña, benetakoa; ez edozein irudi; eurak saltzen diturtenak, baizik. 2.000 pezta ordaindu bear. Orixen da arazoa.
- Gaiñera, badakizu, kandelatxo berezi batzuek erosi bear dira udaberrian, udaran, udazkenan eta neguan, Santuari ipintzeko.
- Oietzek dira "Las 4 Velitas de la Suerte".



### Itxas-gorak eta itxas-beerak



- Molla berri bat egiten diardute napar batzuek Deba'n eta gazte batek galdetezen zuan: "Baña, ur auek nora dijoaz?"
- Galdera ona da ori: Itxasoa gora itxasoa beera; ibaia urez betetzen da eta ondoren ust.
- Sei orduero gora, sei orduero beera. Gora goorago batzuetan eta beera berago besteetan. Aldiko, bete neurri berdiñetan, lege batzuen neurrietan.



- Lege oien arrazoi-bidea nun dago? Itxasoan?
- Ez. Itxasora hegira ez dezu lege oien aztarnik topatuko.
- Nora begiratu bear da, ba?
- Zerura. Lege oien neurria an dago: illargian. Illargia nola, mariak ala. Itxas-gorak eta itxas-beerak, oien neurriak eta orduak, illargian daude.
- Orduan, itxasorik ikusi gabe, jakin diteke uren gora-beera-

kadak?

– berdin jakin deikezuke Deba'ko ordartzatik eta Aralar menditik.

- Agertu eidazu on nola dan.
- Illargi bete eta illargi berri, maria gorenak eta beerenak: goizeko bederatzietan itxas-gorak eta arraltsaldeko iruretan itxas-beerak. Urteko illeetan zear, goraxeago edo beraxeago.
- Eta, illaren bestelako tartetean?
- Marien orduak eta neurriak aldatzen joaten dira egunero. Lege berezi batzuen barruan.
- Gauzarik arrigarriena auxe da: zerura begiratu bear dala, itxasoa nola dabillen jakitzeko. Zer lan egiten du Illargiak?
- Newton'ek aurkitu zuen lege au: Izadiko gorputz guztiak dute alkarrenganako lotura bat. Lurra dago Eguzkiari lotuta: iges egin nai dio baña arrek ez dio uzten lotura arreri esker.
- Eta, Lurrak?
- Illargia du berari lotuta. Illargiak iges egin nai du, baña, Lurrak ez dio utziko; orregaitik dabil girabiraka Lurraren inguruan. Baña, lotura-indar on berak ere badu Lurrean eta ortik sortzen dira uraren zenbait aldaketa: marien aldaketak.
- Zenbat gauza egin bear izaten dituguz Illargiari begira!

### Biziaren Osasun-bideak (Higiene Vital)

- Zer esan nai dozu orregaz?
- Gorputza berez sendatzen dala.
- Eta, osasuntzarako erabiltzen ditugun bideak eta gaiak?
- Ez dirala beti oso-oso onak izaten. Akatsak ere izaten dabez.
- Eta, berez sortzen diran osa-gaiak?
- Ez dirala akatsik gabeak. Esate baterako, kafea berez sortzen da eta erabiltzen da osasunerako (Cafiaspirina); baña, berekin daraman kafeina on, ez da berez ona gorputzerako.

- Argi apurtxo bat, mesedez.
- Gure gorputzeko zelulak, jana eta oxijenoa, biak bear dituzte batera. Oxijenoak janaria erre; ortik sortzen da bizia, baita errekiñak ere. Errekiñ onek kanpora bota bear ditu gorputzak, bestela ilko da pozoien bidez.

- Gaxo-aldia nola sortzen da?
- Gorputza nekatu egiten da; nekatuta, pozoitu. Pozoia kanpora botatzeko sortzen da gaxo-aldia.
- Baña, nola?
- Pozoi on garbitzeko berezko bideak ditu gorputzak: gultzurdiñaren ixuria, izardia, arnasa, kaka, gibelaren beazuna. Tartetan bide oiek ez dira nai-koak eta orduan gorputzaren atalak gartu edo sutu egiten dira (inflamación): zama, belarri, birikako gaitzak...



- Gaxo-aldian, zer?
- Orduan gorputza nekeak auldua dago eta era orretan osasun-biderik onena oia da; deskantsua, giro atsegiña, janari egokiak.
- Janari buruz?
- Gutxiago jan, astiro jan eta ordutik kanpora, ez jan ezer.
- Eta?
- Gauza obeak jan eta gordiñak ere bai... Jan garbiak erabili eta pozoidunak kendu (pipar-miñak, kilikatzaileak, olio zefituak eta abar); ez jan gogorik gabe.
- Geiago, zer?
- Jan-gaiak osatu bazkaltzerakoan (bitaminak, mineralak eta abar).
- Nork esaten ditu onek?
- Eneko Landaburu medikuak. Eta oarrak ematen ditu:

1. Deskantsua geitu (siesta egiñez).
2. Gutxiago, baña obeto jan.
3. Illian bein barau egin edo bestela igaliak eta frutasukuak artu. Barau on bi egun batera artuaz, obeto egiten da: gaurko bazkaritik, biariko bazkarrira.
4. Jateko garaian, ez edan eta gutxika egin.



---

# MENDEBALDEKO EUSKERA XX. MENDE GOIENEAN

---

Izenburu orrenpean, MENDEBALDE Euskal Kulturara Alkartekoek bizkaiereari buruzko egun biko jardunaldiak eratu ebezan Bilbon orrilarren 16 eta 17an. Jardunaldi orreen elburu nagusiak bizkaierearen egoera aztertu, egokitu, prestigiatu eta beraren aldeko kontzientziak iziotutea izan ei ziran, orretara euskerea bera indartuko dalakoan.

Or, bizkaiereari jagokozan lau arlo nagusi aztertu ziran, arean da:

- 1.- Agozko literatura.
- 2.- Irakaskuntzea.
- 3.- Edabideak.
- 4.- Berbetatik eredura.

Berbalariak, urrengo oneek izan ziran: Xabier Amuriza, Rikardo Badiola, Xabier Kaltzakorta, Jose Muruaga, Kepa Altonaga, Juan Luis Goikoetxea, Juan Mari Iraolagoitia, Maribi Unamuno, Igone Etxebarria, Adolfo Arejita, Eneko Barrutia eta Iñaki Gaminde, bakotxari jagokon gaia jorratuteko ordu erdi emon eutsoela.

Moderatzaileak, urrenez urren: Jazinto Iturbe, Iñaki Sarriugarte, Eneko Barrutia eta Jesus Mari Txurruka. Dan-danok aitaturako MENDEBALDE alkartekoak.

Entzuleen artean, besteak beste, Euskaltzaindiako euskaltzain oso batzuk egon ziran, Eusko Jaurlaritzako arduradun batzuk, euskal idazleak eta, batez be, irakasuntzan diarduan irakasle andana. Esan bear da, entzuleek be euren eritxiak azalduteko aukerea izan ebela. Bizkaitarrak ezeze, arabarrak eta gipuzkoarrak be an izan ziran.

Entzundakoen artetik ildo nagusi bi azpimarratu bearko litzakez. Ildook MENDEBALDE alkaratearen bear arloak izango dira:

- a.- Euskera Batua bizkaierearen kutsuz txipriztindutea.
- b.- Bizkaiera estandarrari gure gizartean (irakasuntzan, edabideetan, administrazioan, kallean,...) leku egitea.

MENDEBALDE alkaratea igaz sortu zan Alfonso Irigoien zuzendaritzapean, lau urteko lanaren ostean. MENDEBALDE izena imini eutsoen, bizkaierearen eremua zeozelan zeaztu gurarik, Bizkaia bakarrik ez dala adierazo gurarik edo.

Esan bear da, bizkaierearen aide bear egin gura daua-

nak alkaratearen atea edonoiz zabal-zabalik eukiko dauazala.

Au idatzi dauana be jardunaldiotan tarteko izan zan eta joan orduko idatzitakoak gogotan artuta eta an entzundakoak mamurtu ostean, bizkaiereari buzuzko idazle onek urrengo iruzkin eta eritxi apalak zureganatu gura leukez, irakurle.

## **BIZKAIEREAREN NORMALKUNTZEA EUSKAL GIZARTEAN**

Bizkaiereak gaur egun dauazan indarra eta osasunaren barri jakiteko gizarte bizitzako arlo guztietara jo bear dogu eta bertan dauan garapena neurtu. Aurreko urteetan izan dauan bilakaereari begiratu bear deusogu: guztiz atzerantzako eta ezkorra, erabileran ezeze, jakite mailan be. Bizkaierearen egoera kaskarra, ilteko aginean dagoana ezin dogu aaztu. Igorpena galdu edo eten egin da. Nagusienak dira geien eta ia bakarrak bizkaiera erabilerakoan. Askok ez dabe sinistuko bizkaierearen erabilerarik ezean euskerearen beraren atzerakada andia datorrenik. Sentsibilizazio kanpainak ez dira naikoak, bestelango bide eta neurri sendoak artu bear dira, alik armen artu be. Aaleginak aalegin, aurrera egiteko egingo doguzan urratsak beste neurri batzuetaz osotu ezean, ankamotz eta indarge lotuko dira. Izan be, administrazio, irakaskuntza eta edabideetatik, iru arlo nagusiotatik kanpo lotu da, geiagoko barik. Literaturan be, astiroago bada be, laster atean lotuko jaku. Bizkaierearen izen edo ospe galtze orrek erabileran beerakada andia ekarri dau. Galdubide au ez da oraindikaren eten edo lotu. Eta ez batuaren onerako, erderearen onerako baino. Orretatik guztiorretatik atara leiteken ondorioa, zera da, "orain artean, izkuntza politika okerra erabili izan dala". Orretan erakunde publikoek erantzukizuna ezeze, zeresan eta zeregin aundiak daukezana argi be argi dago.

Izan be, azkeneko urteetan, elduen arteko moteltasun itzela egon da bizkaierearen erabileran, lotsaz edo konplexuz edo...(al aldeano y al gorrión, polvora y perdigón). Erritarrak bizkaiera erabilerako sentsibilizatu eta kontzientziatu bear doguzana zalantzabako gauzea da.

Baina bizkaierearen benetako normalkuntzea lortu

aal izateko bear beste bitarteko zein borondate politikoari bear-bearrezko deritzegu.

### \* Bizkaiereak galdutako izena edo ospea jaso.

(al aldeano y al gorrión,...)

Aspaldiotako kontua da arazo au. Emen jarrera multzo bi nabarmenduten dira:

- bizkaieradunen jarrera
- euskaldun barrien jarrera

Bizkaieradun asko ta askorengan bigarren mailako berbadunaren konplexua igarten da. Arazo au sarri be sarri agertuten da ETB-k edo irratiren batek alkarrizketatuak izankeran. Tresna baliobakoa balitz lez, berealakoan baztertuten dabe euren nortasuna agirian itzi leiken euskalkia. Bearbada "goragoko mailea" erakutsi guran. Geien-geienetan emoitza negargarriak lortuz eta euren izkuntza aberastasuna iluntasunean ostenduz.

Euskaldun barri asko ta askoren jokabide mingarria, geienetan min on sortu gura barik, gero ta zabalduagoa da, au da, "eske, zuk bizkaieraz egiten duzu" orrelango pentsakerea. Or gurabako destaina dago, nonbait, sarritan euren ezjakintasuna eta ezintasuna estaldu gurarik.

Gure euskalduntasunari zor jakon begirunea birreskuratu bear dogu, batzuk, bakotzak here buruari begiratu, eta besteek, dakianarengandik begirune eta apaltasun osoz ikasiz.

Esan bearrik ez dago, erritarren izkuntzea an-or-emenka bultzatu bear da. Tokian tokiko berbakerak izkuntzearen aldetik aztertu bear dira. Erritarrei emoitzen barri emon bear jake, euren berbakerea euren begien aurrean goratu gurarik. Euron eta danon nortasuna dalako. Ospe eta eragin aundiko pertsonak bizkaiera erabilteak mesede andia egingo deutso bizkaierari eta, azken baten be, euskereari berari.

Bizkaierearen normalkuntzan bearrezko dan gizarte giro egokia sortu eta arlo orretan dagozan arazoei urtenbide bateratuak bilatu bear dira. Erritarrak bizkaierearen normalkuntzearen garrantziaz sentiberatu bear doguz. Bizkaierearen onarpen sozialaren oinarri zabalagoa lortu bear da, erabagi pertsonalak eta orokorrak artuz. Baina erakundeek bizkaierearen jakite eta erabilerea sustatu bear dabez, bizkaierearen aldeko kontzientziazinoa sortuz.

Mezua positibizatu egin bear dogu. Bizkaierearen bidez Euskal Erriaren aberastasuna areagotuko dogu, Euskal Erria bera euskaldunagoa egingo dogu.

### \* Bizkaierearen azterketa soziolinguistikoa

Jakin badakigu euskerearen egoera txarra dana, areago bizkaierearena. Egoera oneri konponbiderik gura

badeutsogu aurkitu, ez dago besterik, leenengo ta bein, egoera on benetan zelangoa dan jakitea baino. Onetarako azterketa berezia egin bearke litzake, bizkaierearen eremu osoan eta bere eraginpeko eremuan be bai. Orren arabera egoera arteztuteko bear diran neurriak artu bearke litzakez. Arean da:

- gaitasuna neurtu
- erabilerea neurtu
- jarrerak neurtu

Azterketa onek arlo guztiak ukutu bearke leukez: administrazioa, irakaskuntzea, kalea, sendia, giro formalagoak, euskaldun barrien eragina,... aren ondorioz onelango argibideak jasoz:

- bizkaierearen erabilera eremuak
- bizkaierearen erabilera bilakaerea
- belaunaldien arteko banaketea bizkaierari jagokonez
- bizkaierari jagokonez dagozan ezorekak
- bizkaierearen erabilpenagaz lotura arteza daben beste ainbat eragile

Bizkaierearen erabilerearen aurka jokatuten daben eragileak zeaztu eta aztertu bearke litzakez, esate baterako: sendi barruko igorpena edo igorpenik eza. Bizkaierearen normalkuntzeari buruzko erritarren eritxiak eta jarrerak be entzun bearke litzakez.

### \* Bizkaierearen erabilerea.

Badago belaunaldien arteko austurea izkuntza erabilereari jagokonez. Gazteen artean gero eta gitxiago erabilten bada euskerea, bizkaierearen erabilerea aixar egiteko aginean dago, gitxienetan dago egon eta. Bizkaierearen alarma gorri guztiak iziotuta dagoz

Berbadunen jokaera linguistiko berezkoari bidea emon bear jako. Gure inguruan bizkaieraz egiteko baldintza egokiagoak sortu bear doguz. Oneek egon ezean, gatx-gatx iraun leike bizkaiereak bizirik gure artean. Ostera, areek sortu ezker, bizkaieradunen izkuntza jokaerea bizkaierearen aldeko izan leiteke, gaur eguneko burukonplexu andiak oso-osoan baztertu aal izateko.

Leenengo oinkada lez, bizkaierearen gizarte erabilerea eta jakite mailea parekatutea lortu bear dogu, epe ertainera lortu be. Erabilera au bermatuteko neurriak artu bear dira. Era berean, bizkaieradunen euren euskal kiarenganako aldeko zintzotasuna lortu bear dogu (sendiaren bidez, batez be), bizkaierearen belaunaldi-belaunaldiko jarraipen eta igorpenari eutsi aal izateko. Orregaitik bada, baldintza egoki, baikor eta lagungarnagoak bearrezkoak dira gizartean, eta era orokorrean, ganera.

Erritarren artean bizkaiera erabilteko sentsibilizazio kanpaina andia eta sakona egin bear dogu. Sendi euskaldunen barruko giroa bizkaierearen aide irabazi bear

---

## EUSKERA

---

dogu. Bizkaieradunen artean aldeko jarrerak sendotu eta irabazteko elburuaz. Bizkaierearen jarraipenean daben erantzukizunaz jaubetuazo bear deutsegu. Bizkaierearen izen ona goratuteak asko be asko lagunduko deutso, azken baten, baita euskereari berari be.

Euskerea biziko bada, izkuntza igorpenak dauan garrantziaz jaubetu bear dogu, au da, guraso eta seme-alabek daben garrantziaz. Beraz, sendi barruko izkuntza igorpena oinarri-oinarrizkoa da orretarako, zeresanik ez bizkaiera bera be.

Bizkaierearen erabilera sozialaren normalkuntzea eregi bear da, bizkaiera bera garatu eta bultzatuteko asmotan. Azken baten, bizkaiera gizarteratu bear dogu, gero eta eremu geiagora zabaldu daiten. Erispide nagusi batzuei jarraituz, erabilera plangintzea sortu bearko li tzake onako oneek gogotan artuta:

— Bizkaierearen azterketa soziolinguistikoa egin.

— Bizkaierearen araubidea sortu.

— Tokian tokiko izkuntza plangintzarako egitaraua sortu (argibideak eta erispideak).

— Leentasunezko arloak zeaztu.

— Euskera teknikari, itzultzaile eta euskera zerbitzuek bizkaieraz be jardungo dabena bermatu.

Bizkaierearen erabilera gutariko bakotxaren esku dago, zeozelan, euskerearen etorkizuna be: etxean, eskolan, lagunartean, bearrean, salerosketan, tabernan, kirolan, erakundeetan..., eguneroko bizitzaren arloetan bizkaiera egingo dogun neurrian, bizkaierearen etorkizuna egiten ibiliko gara. Bizkaierearen erabilera oiko eta eguneroko arloetan sendotu bear dogu, sendotu be.

### \* Bizkaierearen igorpena

Bizkaierearen igorpena bermatuteko sendia dogu ardatz naturala eta nagusienetariko bat, eskolea eta urko komunitatea be garrantzizkoak izanik. Eskolea eta sendia, bizkaiera, euskerea, bizi-bizirik jagon eta garatuteko gune biok bearrezkoak dira. Eskola eta sendiak, bizkaierearen erabilereari jagokonez, alkarregazko loturea, alkarren ondoko katebegi bi izan bear dabe, onartuezina litzake bion arteko etena. Eskolan ikasten dabenak gero sendiaren barruan izan bear dau jarraipena, eta iruntzietara be. Sendia oinarri-oinarriko gunea dan ezkerro, bizkaierearen etorkizuna sendiari estu-estu lotuta dago, beraren bidezko igorpenak garrantzi ukoezina daukala. Sendiak belaunaldi batengandik bestearengana izkuntzea igarotea bermatu daroa eta. Norbanakoaren izkuntza jokaeran sendiak garrantzi aundia dauka, bera oso artuemon sare indartsua izanda, iraupen luzeko artuemon sarea dalako. Sendian datza -eta euskerearen jarraipena. Egon, ez dago beste biderik sendiak besteko etekin edo emoitza obarik lortu leikenik. Bizkaiera ikasi eta

erabilteko gunerik egokiena, ekonomikoena, emonkorrena eta eraginkorrena da izan.

Orain artean, izkuntza gaitasuna, au da, eredu bakarra (batua) izan dogu elburu-jokabidea. Umeak izan dira jokabide orren artzailerik nagusienak. Baina, izkuntzeari jagokonez, umeak be ur-ur dabezanengana –senitarte-koak– urreratu bear doguz, urte askotan apurtutako artuemon linguistikiko normalak bizkaierearen bitartez bere lekura ekarri bear doguz, bere senera, atan be, bizkaierearen beraren aldeko jarrerak eta erabilerea sendiaren barruan indartu eta areagotuz, bizkaierearen jarraipena ziurtatu daikegun. Bada, igorpenaren ontasunak bere leentasunezko lekua birreskuratu bear dau. Urko artuemonetan ezeze, formalagoetan be. Orretarako:

– Ingurune bizkaieraduna, erri mailea abiaburutzat artuta, gogotan artu bear da. Bizkaierearen erregistroak ez dira izkuntza eredura igaroten eta.

– Plangintza orokor egokia egin bear da, bizkaierearen igorpena belaunaldien artean bermatu eta agozko ereduari eusteko. Izan be, igorpen on da garrantzitsu, errez, merke eta eraginkorrena.

Kontzientziapena bizkaitar eta bizkaieradunen artean sortu bear da. Sentsibilizazio eta motibazio kanpainak: irakaskuntzan, sendian, kalean... "Bizkaierearen eguna", eta abar.

Sendi barruko artuemon bizkaieradunei eutsi bear jake, etxerik etxeko aldeko kanpaina eratuz (gurasoak).

Irakaskuntzearen bidez bizkaierearen igorpena bermatu bear da, irakasle bizkaieradunak kontratatuz eta tokian tokiko berezitasunak jagonez.

Euskaltegiek (AEK, udal euskaltegiak, barnetegiak, baserri eskolak) elduen alfabetatze/euskalduntzea bizkaieraz be sortu bear dabe.

– Astialdirako ekintzak bizkaieraz eratu bear dira.

Bizkaierearen, euskerearen, erabilera plangintzak inguru soziolinguistikoa bat egin bear dau oso-osoan, euskerearen jarraipena belaunaldien artean bermatu gura izan ezkerro, jakina.

Askotan, goi-mailako plangintzea baino, eraginkorragotzat joten da bertsolaritzea, ipuin leiaketak, eta abar bultzatutea, baina, batez be, etxean egitea da garrantzitsuena.

Sartalde onetako gizarte osoa bizkaierearen garrantziaz jaubetu daiten aalegin aundia egin bear dogu.

### \* Bizkaiera administrazioan

Lebearen arabera, iru erabilera gune garrantzientatik administrazioa dogu leenengoa. Administrazioan ego-kitzapen berezia bear da bizkaierearen, euskerearen, igorpen katea ez eteteko eta beraren jarraikortasuna ber-

matuteko. Egokitzapenik eroso, merke, zeatzen eta ondoriorik aberatsenak ekarriko deuskuzana aukeratu bear dogu. Azken baten, administrazino barruan bizkaiera lan eta zerbitzu izkuntza bihurtutea litzake elburua, bai barrura bai kanpora begira.

Administrazino txikiek (udalek) zein aundiek (Aldundiek eta EJ-k) bizkaierearen erabilera sustatu bear dabe, barru zein kanpoari begira. Orrek administrazinoaren kideen izkuntza gaitasuna sendotu eta, bide batez, erabilpena araututea dakar (Euskerearen Udal Arauak). Lan ekoizpena bizkaieraz sortutea da elburua. Leenengo ta bein, izkuntza oiturak eta inguruaren baldintzak egokituz joan bear da. Geroko baten, ekoizpen guzti-guztiak bizkaieraz egin artean. Onetarako, bearginen eskuartzea oinarritzkoa da.

Administrazinoan bizkaiera erabiliko bada ala ez agintarien eskuetan dago. Beraz, ukoezina da arlo onetan agintari politikoen erantzukizuna. Alderdi politikoen eskuartzea eta konpromezua bear-bearrezkoak dira gaia bideragarri egitekotan.

Bizkaiereari leentasuna emon bear jako, agoz zein idatziz, zerbitzu publiko zein pribatuetan (osasunbidea, diru etxeak, epaitegiak, irakaskuntzea, Eleizea, kultura alkarteak, seinalakuntzea,...). Orretarako erabagi politikokoak bear dira. Bizkaiera administrazinoan txertatutea ezin leiteke, baina, tresna edo iskilu politikotzat erabili, txertaketa on berezko gauzea izango dalako, natural-naturala.

Bear be, bizkaierearen aldeko lurgunea bear dogu Euskal Erriko Sartalde onetan. Aukerea geurea da. Bizkaieraz bizi diran Udalakaz (oraingoz Bermeokoa bakarrik) bat eginik, inguruko errietara zabaldu geinken asmo polita da izan. Aaztu bank, erriotan dagoan bizkaieradun errealitate soziolinguistikoa. Udalotan bizkaierearen aldeko aurrebaldintza egoki-egokiak dagoz egon eta.

Administrazinoen arteko artuemonak bizkaierearen bitartez atondu bearko litzakez. Udalak beste administrazinoakaz bizkaiera erabiliko dau. Alan be Aldundiek udalakaz. Administrazino mailan bizkaierearen erabilera arautu eta normaldu bear da, betekizun guzti-guztiak bete aal izan daiazan. Administrazinoan bizkaierearen erabileran aurrera egitea euskerearen normalkuntzan aurrerantzako urrats garrantzitsua egitea litzake eta.

### \* **Bizkaiera irakaskuntzan (eskolaurrea, OHO, UBI)**

Irakaskuntzan azkenengo urteotan erabili izan dan izkuntza politikea birrikusi bearko da. Gurean ez dau, geiengeienetan, inguruko izkuntzeagaz ezelan be bat egin. Or, zeozelan, izkuntzearen igorpenaren katea eten

egin da. Orren ondorioak, oraindinokarren, inork neurtu ez dauazan arren, edonorentzat agiri-agiriak dira, arean da, euskereari berari lagundu baino, kalte geiago egin deutso. Daukagun izkuntza altxorra baztertuz, beste eredu batzuk eta eurek bakarrik, gurataguraez, sartuak izan dira eta. Ez da or eredu batetik besterako ezelango zubi antzekorik egon, zoritxarrez. Etxeko eta eskolako euskera ereduaren artean aurkaesan andia sortu da, bizkaiera gitxiagoturik albo baten geratuz.

Beraz, gauzak dagozan egoeratik egoera normal batera eroateko bear-bearrezko da izkuntza politikea aldatu eta egokitutea, au da, bizkaierearen aldeko izkuntza politika egokia ezartea. Or Eusko Jaurlaritzari jagokon sailak zein eskoletako irakasleek euren ikuspegi itxia albo baten bertan beera itzi bear dabe. Azterketa zorrotza egin bear da irakasleen gertakuntza eta etenbako birziklatzea dirala-eta, bizkaiereari jagokonez, umezaindegietatik unibertsitateetaraino. Bearrezkoak dira politikarien borondate politikoa eta irakasleen ezkuntza borondatea be. Bizkaierearen bearrizanaz bete-betean egon daitezcan eragin bear jake.

Zer esanik be, arazo onetan guraso askok be askok daukezan erantzukizuna eta konpromezua artubearra.

Irakaskuntzan bizkaierearen aldeko giroa sortu bear da, gaur egun bizkaierearen aurkako eta baztertzaile bizi dogun giroa bestelakoa erakusten deuskun arren. Irakaskuntzearen barruko administrazinoak arazo onetan badauka zereginik eta zeresanik. Bizkaiera oidalako eta oiko biurtu bear dogu irakaskuntzan, ikasle-irakasleen arteko eskola barruko zein kanpoko artuemonetan, biurtu be.

Bizkaiera ezkuntza sistemearen berezko izkuntza lez ezarri bear da. Bizkaierearen erabilera publikoa, areri jagokozan lurraldeetako berezko izkuntzatat bultzatu bear dau ezkuntza sistemeak.

Elduen alfabetatze-euskalduntzeak be, beraren zeresana euki bear dau bizkaierearen aldeko normalkuntza bide orretan: aukerak-irakasleak metodologia eskuaren ipinitako, ain zuzen be.

### \* **Bizkaiera eta edabideak**

**ETB-** Orokorrean, euskalkien eskuartzea lortu eta areagotu bear da. Erritarrek alkarrizketetan egiten dabena ezeze, aurkezle-esatariek egiten dabena be. Zati aundi baten egin egiten dabe, eredu bakarrari jarraituz (gipuzkerea), baina. Batuagazko dendua lortu bear da, euskalkiei jagokenez, eta, batez be, xiberoera eta bizkaiereari jagokenez.

**IRRATIAK-** Bizkaiko irratietan, Bilbokoetan, bizkaieradun eremuko irradi euskaldunetan bizkaiereak zeresan aundia bear dau euki, leentasunezkoa, atan be.

---

## EUSKEREAA

---

**ALDIZKARI-EGUNRARIETAN-** Erri eta errialde-etako aldizkarietan bizkaierari leentasuna emon bear jako. "Euskaldunon Egunkaria" euskereari zabalduetako leioa dogu eta esan bear da, bizkaieradun gitxik be gitxik bizkaieraz bertan idazten dabela. Or gure buruari egin-bearreko kritikea. Or dago, bada, zabalik dagoan erabili bako lei() interesgarria!

### \* Euskerearen normalkuntzan bizkaierearen zeresana

Euskerearen normalkuntzarako garrantzitsua da bizkaierearen normalkuntzea, euskera bizia dalako. Euskal gizartea normalduteko euskerearen normalkuntzea garrantzitsua dan ginoan, beintzat.

Erabileran oinarritutako normalkuntzea sortu bear da, apurka-apurka arlo eta eremu barriak irabaziz. Onetarako, aurrean aitatutako iru eremu nagusietan, batez be, jakite mailea, gaitasun eta erabilera egitasmoak sortu eta gauzatu bear dira.

Bizkaiereak galtze eta atzerakuntza andia egin dau azken urteotan, bai berbadunen kopuruan, bai erabileran, bai lurraldez. Ordezkapen bide eskergan sartuta dago. Geien baten, erderearen indarrezko ezarpen eta beronen indar sozialagaitik, baina baita ezarrirako euskera plangintzearen okerbidea edo eraginik ezagaitik be.

Bizkaiereak joko andia euki bearko leuke euskerearen normalkuntzan, bizkaierearen soinari bere osotasunean begiratuta, jakina.

### \* Bizkaierearenganako gorengo erakundeen izkuntza politikea

Izkuntzearentzat oinarri-bearrezko eragilea ezkuntzea da.

Baina ez da bakarra. Gizarte ingurunearen eragina nabarmendu bear dogu. Izkuntzearen aldeko jokabideak garatu bear doguz, eta izkuntzearen erabilera errotuteko bearrezko gizarte ingurunea bear da. Izkuntza eragileen multzoa, atan be.

Izkuntzearen, bizkaierearen aldeko jokabideak garrantutzea agintari politikoen erantzukizuna da. Erri borondatea ekintza biurtu bear dabe, eta kultura, ekonomia arlo zein edozein arlotan neurriak artuten dabezan lez, onetan be neurriak artu bear dabez. Erritarren arteko norberaren izkuntzaz irudi txarra izatea ez da oidalakoa eta. Egoera ori normaldu bearra dago. Izkuntza politikearen elburua izkuntzearen normalkuntzea da. Beraz, neurriok izkuntza politikea garatutean datzaz, izkuntza politika egokian atan be.

Politikoak dira izkuntza politikea sortu dabenak. Izkuntza politika orrek, batez be, administrazioan (uda-

lak, aldundiak,...), edabideetan eta irakaskuntzan eragin andia be andia eta argi-zuzena dauka. Politikoen eskue-tan dago, beraz, bizkaierearen etorkizuna. Bizkaierea bera babestu, bultzatu, sustatu eta erabilteko aaleginak egitea, atan be. Au da:

- bizkaierea ondorengoentzat bermatutea
- bizkaierearen oiko erabilera eremuak sendotutea
- bizkaierearentzat berbadun barriak irabaztea
- bizkaierearentzat erabilera eremu barriak irabaztea

Zenbatekodun izkuntza politikeak —eta zalantza barik, zelangotasuna bizkaiereak dakar—, edozelango euskera igorpenak, ez dau oinarri sendorik iminiko euskerearen zein bizkaierearen birreskurapenerako. Betelana baino ez da izango, etorkizunerako oinarria imini bearrean. Zenbatekoari begiratu barik, oba da zelangotasunari begiratutea.

Eusko Jaurlaritzak (EJ) eta Foru Aldundiek erriko errealitate biziagaz bat egin bearko leukee, euskereari jagokonez. Onek esan gura dau, bizkaierea aintzakotzat artu bear dabela, bai barruko, bai kanpoko artuemone-tan. Errealitate bizi orregaz bat egiteko, bearrezkoa da izkuntza politika egokia egitea. Egokitasun on ezin leiteke ezelan be ulertu, bizkaierea, gaur arte egon dan lez, albo baten baztertuta lotuten bada. Au da, izkuntza politikatik ate egotea, sarbiderik ez eukitea. Gizarte arlo guztietara eroan eta ezarri bear da izkuntza politika barri ori. Gauza asko aldatu bear dira or eta orretarako politikarien borondate ona bearrezkoa da, jakina.

Izkuntza politikeak plangintzea ekarri bear leuke, onetan bizkaierearen aldekoa ekarri be. Bizkaierea normalduteko bearrezkoa dan plangintza orokorra jomuga izan bear dogu. Bizkaierearen erabilera soziala eta publikoa ziurtatu eta bermatu bearko dauz izkuntza plangintzeak. Baita erabiliko dan bizkaierearen jatortasuna eta aberastasuna jagon be. Aldarrikapenak egia bihurtuta igaro bear doguz. Plangintza orokor au euskal erakundeek bideratu bearko leukee, arlo guztietan bizkaierearen aldeko dinamikea iziotuz. Leentasunezko arloak edo lerro nagusiak landu bear dira, arean da:

- administrazioa
- irakaskuntzea
- edabideak
- kaleko erabilpena
- sendiaren barruko izkuntza igorpena

Izkuntza politikea egiterakoan, euskerea bizirik dagoana, arean da, bizkaierea, aintzakotzat artu bear da. Bizkaierearen normalkuntzearen kontzientzia eta kultura zabaldu bear doguz. Bizkaierearen aldeko plangintza orokorra bultzatu bear da, erabilpena, agoz zein idatziz.

Au guztiau aurrera atarateko, erronka andia bada be, esanda dagoan lez, borondate politikoa eta baliabideak eskueran imintea bearrezkoak dira.



### \* **Bizkaiera bultzatuteko itzarmenak**

Erri alkarte eta taldeek erakundeakaz egindako eta bizkaiera bultzatuteko itzarmenak dira. Bizkaierearen erabilera areagotuteko, atan be. Bizkaiera erabilteko konpromezua artutetako, bai izenpetzaileen euren arteko artuemonetan, bai izenpetzaileok beste talde edo erakundeakazko artuemonetan be. Itzarmenen izenpetzaileek euren eguneroko barruko jarduketan be bizkaiera indartuteko konpromezua artuko dabe.

### \* **Bizkaiera eta bere eremu erdaldunak**

Euskeraz bizi diran lurraldeak, udalerriak, bizkaieraz bizi diranak barru, sendotuteak leentasun osoa izan bear dau euskerearentzat.

Bizkaierearen eremu erdalduntzat euskera galduta dauken Bizkaiko eta Arabako eremuak dira. Bertan egiten zan euskera bizkaiera izan zalako eta orren egitzapen argiak toponimia bera eta bertako askoren antroponimia doguz. Ori olan izateaz gan, eurentzako euskal lurralderik urkoena, auzoa, bizkaierearen lurraldea da izan. Beraz, euskerearen aldetik bizkaiereak leenago eragin leikie beste euskera moeta batzuk baino. Or bizkaierearen egona edozein arlotan, logika osoaren aurka, ia utsaren urrengoa da. Ez dira bizkaiereari buruzko jakintza gitxieneko batzuk bermatuten be. Orren adibiderik argiena Bilbo bera da. Bilbon bertan be, euskaldunen artean bizkaieradunak geiengo aundia izanda be. Bilbon bertako euskera oraindinokarren il aginean bizirik badago be.

Eremu orreetan bizkaierearen egona bermatu bear da, bai irakaskuntzan, bai administrazinoan, bai edabideetan, baita edozein arlotan be. Udalerrri bizkaieradunen aldeko politikea egin bear dabe euskal erakundeek.

### \* **Bizkaiera versus batua**

Aspaldiko kontua da au. Beinola bateko kontu onek burruka antzekoa sortu eban bien artean. Burruka antzuagorik! Bai aide batetik zein bestetik. Burruka antzu on aaztu egin bear da. Batuak bere bidea argi ta garbi dauka, lotuezina, eta onartubearrekoa. Bizkaiera, osterara, bere bidea idoro ezinik jabilku. Bideok, bata zein besteak, alkar osogarriak eta egundo be ez aurkakoak izan bear dabe. Ezin leiteke bideotatik bat, bestea dala-eta, aolan, geiagoko bank, baztertu, ez eta iruntzietara be. Izkuntza idatziak eta agozko izkuntzeak alkarregaz norabide berean joan bear dabe eta ez alkarren aurka.

### \* **Bizkaiera estandarra**

Bizkaiera estandarren bearrizana argi be argi dago.

Euki badauka bizkaiereak here tradizino idatzi luzea eta indartsua. Agozko ereduari jagokonez, gogotan artutetako da urteetan Eleizeak bizkaieradun lurraldeetan anor-emenka erabili izan dauan eredu jasoa, erriak a ulertuteko arazorik euki ez dauana, atan be. Orain dala urte batzuk bizkaierearen estandarizazioaren bidea asi zan: bizkaierazko idatz arauak, deklinabidea, aditza eta joskerea. Badagoz egon, osterara, zer batzuk, oraindinokarren, argitasun eta ukutu barik lotu diranak. Eredu estandar on zeaztu eta ezarri bear da. Eredu integratzailea edota bateratzailea erabiliz, arean da, bizkaiera osotua. Batuarako artutako eredu baztertzalea saiestutea garrantzizkoa da, ez daiguzan, azkenean, ia gipuzkera uts biurtu dan euskera batuan egindako akats baztertzaleak bizkaiera estandarrean be egin. Dagozan urtenbideak danak onartu eta aukeran itzi (e.b. gintzazan / ginan), baten aldeko jokerea erakutsi arren. Egin daigun estandarizazioa inor atean ez sentiduteko moduan.

### \* **Bizkaierearen gramatikearen aldetik dagozan iluntasunak**

Dagozan iluntasunak eta utsuneak argitu eta beteteko jakitunen batzorde eragile zabala eratu bear da. Bizkaierearen estandarizazioa sortu eta lortuteko, onargarri eta erabilgarri izan diran eta diran aukera guzti-guztiak onartuz, aolkatuz eta eskueran iminiz, bai aditza, bai joskera, baita iztegiaren aldetik be. Orretan batuak daukan erabide linguistikoa lortu eta aren pareko joan bearke leuke gure bizkaiereak. Izkuntza jasoa izan daiten lortu bear dau, idatziz zein agoz, berak bizirik irautea gura badogu, beintzat.

### \* **Bizkaierearen aolkularitza**

Aurrekoagaz lotuta eta aregaz bat egiteko, egitura edo zerbitzu tekniko au eratutea oso interesgarri izan leiteke bizkaiera bera bultzatu, zabaldu eta normalduteko. Beraz, bizkaierearen normalkuntza eta birreskurapen bidean aolkularitza izatea dau elburu. Azken baten, bizkaierearen normalkuntzarako tresnea izango litzake. Zerbitzu onetan erakundeen eskuartzea garrantzi aundikoa litzake (EJ, Aldundiak eta udalak). Zerbitzu tekniko orrek bizkaiereari buruzko dokumentazino zerbitzua, laguntza tekniko, arlo orretan beste batzuen lanak batutea, argibideak emotea, normalkuntzan artu bearreko neurrien gane-ko eritxia emotea, erabilera eta sustapena aalbidetuteko proposamenak egitea, eta abar eskeini bearke leukez.

### \* **Bizkaiera utsezko aldizkaria**

Bizkaieradunen multzoa edo komunitatea zeozelan

---

## EUSKEREA

---

alkarregaz lotu bear dogu. Komunitate orren arteko komunikazio berrizana egon badago eta bizkaierazko aldizkariak bete leike utsune ori. Gaur egun, gure arteko lotura idatzia bear-bearrezkoa da bizkaierak bizirik irautea gura badogu, beintzat. Edabide idatziaren ekarpena bizitza kulturalaren eta sozialaren onatsunagaz eta indarragaz lotuta dago eta.

Erritarrek euren euskerearen balioaz jaubetu daitezcan eta bizkaiera apurka-apurka jantzi aal izateko, bizkaieraz idatzitako aldizkaria beren beregia da. Bizkaieradunak euren euskalkian irakurten oitutea (dakigunetik ez dakigunera joanik) elburu argia dogu. Bizkaierearenganako begirune eta ezagutza soziala areagotuko dauz eta. Ainbat izkuntza erregistro gaurkotu, antxinako batzuk birreskuratu eta bizkaierearen aberastasuna zabalduetea jadetsiko litzakez. Euskaldundu eta alfabetatuteko be tresna erabilgarri besteko osogarria litzake aldizkaria. Egon be, gero ta bizkaieradun geiago alfabetatuta dagoz (batuaz geienak) eta oraindinokarren erreferentzia idatzirik ezean bizi gara. Bizkaiera utsez idatzita, bada, egon bearke leuke aldizkariak, publizitatea barru.

Izkuntzearen normalkuntzeak eredu idatzian dauka bere oinarriker sendoena. Idatziko ez dan izkuntzeak iraun nekez iraungo dau bizirik. Bizkaierari, here nonnalkuntzearen bidean, asko be asko lagundu leikiona aldizkariarena izan leiteke. Izan be, aldizkaria izan leiteke bizkaierearen normalkuntzearen bermatzailea. Aldizkari osoa bizkaieraz idatzita. Bizkaiera estandarrean idatzita egon arren, here orrialdeek aldaera, berbakera guztietara zabalduetea egon bearke leukee. Izan be, kendu baino geitu egin bear dogu eta. Baztertu baino, onartu egin. Bada, azpieuskalki eta euren altxorrei era estandarrean idatzita leku egin bear jake bizkaierearen aldizkari orretan.

Edukina, egitura eta lido profesionalaren aldetik, "Euskaldunon Egunkaria" eta "Argia" barriemoilek darraien eredu jarraibidetzat artu leiteke onerako be.

### \* **Bizkaiera eta liburugintza-argitalpenak**

Or, arlo bi aztertu leitekez:

- literatura arloa
- irakaskuntza arloa

Azkeneko urteotan, bizkaieraz egin izan dan literatura gero eta urriagoa izan da. la utsaren urringo biurtu artean, idazle bakan batzuk egindakoa izan ezik. Bizkaieradun idazleak bildur dira bizkaieraz idazten, "zer esango dabelakoan" edota "danok ulertu daigun". Fenomeno bitxi be bitxia dogu, anaturala. Gitxitasun konplexua ete? Oidalakoa izan bear leukena, oiezlako biurtu. Zerbakiak or dagoz, bizkaieraz egiten dan ekoizpena negargarria da.

Beste orrenbeste irakaskuntzan jazoten da. Emen, baina, akiakulea aundiagoa da: ez dago bizkaieraz

eskeinduten daben ikastetxe naikorik, au da eskabide naikorik, olako ekoizpena zuzenesteko beste. Alan da ze, bizkaierak, merkatuaren legeen logikapean il bearke dau. Dana diruaren neurgailuz egingo bagendu lez! Esan bearrik ez dago be, irakaskuntzan goitik aginduten dan izkuntza politikeak olako egoeretan eragin aundia daukana. Nork egin edo egiten eta aginduten dau dalako izkuntza politika ori?

### \* **Seinalakuntzea bizkaieraz**

Tokian tokiko ereduak eta izkuntza aldaerak gorde gurarik, seinalakuntzea –kanpokoa zein barrukoa– bizkaieraz egin bearke litzake. Inguru linguistiko bakotzak daukazan izkuntza iturburu eta altxorra erabiliz, aren eusti guran: bide iragarkiak, toki eta zerbitzu publikoetako seinalakuntzea, toki eta zerbitzu pribatueteako seinalakuntzea,... Beraz, eta erispide lez:

- Bizkaierari leentasuna emon.
- Tokian tokiko berbakereari bidea emon, a jagotekotan. Seinalakuntzarako aukeratutako eredu estandarretara arik eta geien urreratu, beti bizkaierearen nortasunari leentasuna emonez.
- Bertoko lekuizenak eta toponimia birreskuratu eta agirian erakutsi eta iragarri.

Bizkaiera entzun ezeze, ikusi be egin bear da eta. Au guztiau garrantzi aundiko arloa da, bizkaierak galdutako ospea eta "lurraldea" birreskuratu aal izateko. Azkenean, euskerearen onerako izango da eta.

### \* **Bizkaiera eta publizitatea**

Publizitatea egunero eta edozein lekutan ikusten dogun mezuz betetako arloa dogu. Mezuok gitxi-gitxitan izaten dira euskeraz. Bizkaieraz, are gitxiago. Gitxienetariko bat "El Corte Ingles"-ek darabilan publizitate adibidea dogu. Bizkaierari argi ta garbi egiten deutso leku eta.



Publizitatea bizkaieraz be aal dala egin erakutsi bear dogu. Ekimen pribatua aide onen etekinaz be jaubetu daiten, bizkaiera erabili, sustatu eta garatuteko kanpaina zabala eratu bear da. Baina erakunde publikoen babes politikoa bearrezkoa da orretarako, jakina.

Beste aldetik, errietako jai, jaialdi, kontzertu edota edozein ekintza eraturerakoan ekintzon barri emoteko iminten diran ormirudietan gitxi be gitxi dagoz bizkaieraz. Arlo onetan badago zereginik, oraindinokarren. Erri euskaldunetan, batez be. Aor, bada, tidal Administrazi-noak egin leiken tokian tokiko bearra, bizkaierearen aldeko kontzientzia erritarrengan birloratu, birreskuratu eta errotu daiten.

**Iniaki MARTIARTU**  
1997ko dagonilean


# EUSKALDUN BARRIENTZAT

8 EZBERDINTASUNAK AURKITU BEAR DOZUZ!



Patxi gizajoa, etxetik urrun joan da, orain bear dan bidea aurkitu eziñik dabil. Afaldu barik ogera joango da, erakutsi eiozue bide egokia!

- ~luuTu~lug -8
- leq nxtnd .zn -L
- ~luo~lTdzu uxe.-d -9
- ~uTolog -S
- uualnal nolnz oxezlua.tu.zn -I,
- mum maw &
- ezl;eq olnza}l -Z
- eztluq oTa~ -1



AZALPENA:


N	I	L	d.L		I	Q	N~	Li
	N	V	.L	d	N	2l	g	d.L
	V	2l	V	Z	L	2l	V	Q
			N	d.L		O	S	d
				d	I	I	t~	2l
					I	Z	.L	V
	Z	t~	x	t~	a	S	d	x
				fl	Q	N	I	d
							S	O
						V	N	S

- 1.<sup>o</sup>– Zer da beiak emoten dauana?  
Jateko gogoia daukazu eta ez zara egarri. Zelan zagoz?  
Belarriez entzuten dozu; surraz zer egiten dozu?  
Irakaslea klasean sartu da; nogaz dago?
- 5.<sup>o</sup>– Irakasleak irakatsi, ikasleak ikasi; Zer da idazleak egiten dauana?  
Zer da uretan bizi dana?
- 7.<sup>o</sup>– Nun egoten dira otsoak?
- 8.<sup>o</sup>– Nora joaten da jendea, eguzkia artutera?  
Zein lekutan edaten da ardaoa?
- 10.<sup>o</sup>– Nundik jaitsiten dira mendizaleak jai egunetan?

KARMELE



Akelarre. Nestor Barrenetxea



## BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK